

"Goizean lainotsu, arratsaldean pasiotxu"

AREITIO, TRABAKUA ZEIN ELGETATIK
JAISTEAN GOIZ BATZUTAN BISTAKOA
IZATEN DA ERMUA, MALLABIA ETA
EIBAR GAINEKO BEHE-LAINO
TXAPELA: BAILARA GUZTIA ESTALTZEN
DUEN MANTA ZURI ZERRATUA, LAINOZ
OSATUTAKO ITSAS ZABALA.

Gertaera meteorologiko honen berri emateko Roberto Gil meteorologo durangarrarengana eta gai hauetan aditua den Jorge Totorika ermuarrarengana jo dugu.

Gaueko ordu txikietan, goizaldean, eguzkia mendealdeko mendien ostean aspalditik gordeta dagoenean sortzen dira haran laino hauek. Horiek dira orduak beranduago bere gorputz zuriekin txoko guztiak estaliko dituen behe-lainoaren jaiotza lehen orduak: gure gautxoriari ez zaio haizea gustatzen, bai osteraz hezetasuna eta freskura eta hotz-beroak beherakada handia egiten duenean gauzatzen da. Gaua da bere lagunik maitatuena; eguzkirik ez egotean lurra berotasuna galtzen du eta hotz horren ondorioz airea umelagoa da.

Txapel zuria

Areitio, Trabakua edo Elgeta aldetik jaistean, goialdeko estalki zuri trinko hori lainoek tope bat dutelako, atmosferan gora ezin dute

lako egin ikusten dugu. Hau guztia gertatu dadin inbertsio termiko bat eman behar da; igotzen goazen neurrian hozten joaten da (igotako 160m. bakoitzeko hotz-beroak gradu bateko jaitiera sufritzen du). Haize hotza, pisuaren pisuz, jaitsi egiten da eta goian hark lagatuko lekua haize beroak betetzen du. Honek behe-lainoak sortarazten ditu eta sortutako laino sabai hori mantentzen du. Goiza aurrera joan ahala, eguzkiak bere izpien atzamar beroekin alfonbra zuria zulatuko du. Lainoak apurtu eta inbertsioa hautsi egiten da orduan, txapela desagerraraziz. Behin eguzkia agertutakoan egun osorako ziurtatuta daukagu eta haren atzetik batzutan egunetarako antizikloi eguraldi eguzkitsua datorkigu ate joka. Dena den, okerrago izan zezaken; badira lekuak Meseta eta Ebro ibai inguruan behe-lainopean egun osoa ematen dutenak eta borras-ka bateko ekaitzak eguraldia eskastu arte ezin dutenak estalpe temati horretatik hanka egin.



Gure mendi eta urak

Haran aldapatsu eta estuak dira gureak. Horixe da Deba ibaiak eta haren arroak osatzen duen bailararen ezaugarriarik esanguratsuena: desnibel itzelezko mendi aldapatsuen magalean kokatutako lurra izatearena. Urko bera 628m.ko batezbesteko desnibela kontuan hartzeko modukoa da; haizeak bere pendizen kontra jo eta irteera oztopatuta duenez nekezago dabil. Haize korronteak makalagoak izatean, behe-lainoa dagoen lekuan geratzen da luzaroan.

Eta erreka gero. Zati luze baten estalita eta etxeak eta kaleak gainean dituela ezkutatuta joan arren ere, herri barrura artekoa bistan daterrela egiten du. Horrenbeste

aldapa, mendi, muino eta pendizetan goitik beherakotan ez dira ur-irriak, erreka, erreka, ur-jauzi eta ujalak besterik sortzen. Freskura, hezetasuna, umeltasuna, ura... horixe garraiatzen dute erreken arrimura sortzen diren lehen behe-lainoek eta horixe darama baita soinean bailaran gora zabalitzen den lanbroak, landare eta zuhaitzei ostutako umeltasunarekin karga-karga eginda doala.

Udazkena, negua, udaberria. Behe-lainoak bere horretan jarraitzen du eta gu haren azpian ohituta, eguerdi aldeko epeltasunari begira eta bihar edo agian etziko eguraldi atseginarekin esperantzan.

Estibalitz González

Solozabal
estankoa

torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa

MUGA

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

AKADEMIA
ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ
KONIBLATUAK

Ermuko Merkataria,
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkataria
943 77 05 98